

Erradio-aktibitatearen problemak

Erradiazioen efekto fisiologikoak ezagutzeko, toki berezi bitara joan gitezke: edo fisikarien laboratoriora eta hospitale batera. Ni neu bigarrenera zuzendu naiz, elkar hizketa bat zertzeko asmoz. Han, neska gazte bat dago nire zain; medikua da bera, eta erradiazioen gorabehera fisiologikoak azalduko dauzkit. Guztiz jatorra da. Bera prestatu zitzaidan entrebistarako, Iturribide kalean ukan genuen* txikiteo batean.

— Honez gero, ez hintzela etorriko uste nian. Hamarrak eta hogeï dituk eta.

— Hamarretan esan neunan, baina zirkulazio astun honekin ez diagon zer eginik.

— Tira, goazen barrura.

Hospitaleak herri aislatu bat dirudi. Jantzi zuriak toki guztietatik, eta noizean behin karro arraro bat, zuria hau ere, gaixoren bat eramanki.* Gela batean sartzen gara, eta han, mahaiaren alde bietara gaudelarik, magnetofonoa jartzen dut martxan.

— Gaur erradiazioen efekto kaltegarriak azalduko dauzkiat. Honekin, beharbada, beldurtu egingo haiz pixka bat; baina gero, erradiazioen aplikazio mesedegarriak ikusirik, haien garrantziaz konturatuko haiz eta beldurra ere kendu egingo zaik.

— Has haiteke, nahi dunanean. Prest niagon.

— Ez dauat fisikazko kurso bat emanen; baina, dakianez, erradiazio mota ezberdinak diaudek: alfa, beta eta gamma bereziki.* Guzti hauek efektoak berba batez esatekotan, materia ionizatzen dutela esango nitek. Ionizazioaren kausaz, izpiek* molekula apur zitzakeate, eta, sorturiko zatiak batzen ez badira, molekula hoik* galdu egiten dituk.

— Molekula galtze hau inportantea da?

— Ba dituk molekula batzuk, bizitzarako garrantzi haundikoak direnak. Gainera, zatiak pozoindunak izan zitezke.

— Efektoak, berdinak dira gorputzaren parte guztietan?

— Ez eta hurrik eman ere. Eun* batzuk guztiz gogorrak dituk; beste batzuk, ostera,* ahulak.*

— Zeintzuk dira eunik gogorrenak?

— Azala eta giharra. Hauek erradiazio haundiak behar ditiare gaixotzeko. Ahulenak, aldiz, sexo organoak eta begiak dituk.

— Nola agertzen dira sintomak?

— Azala, erreta balego legez* agertzen ziaiguk. Hondartzan gaudela, egukiak erretzen gaituenean, izpi mota batzuen bitartez erretzen gaitik.

— Gauza bat. Zer gertatzen da odolean?

Han ere, erradiazioen kausaz, bikor gorrien (leuko-zitoen) numeroa gutitu egiten duk. Horrela, leukemia diatork.

— Lehen esan dautananez, sexo organoak ditun ahulenak. Esplika hezake zerbait horretaz?

— Erreproduzio arloan fenomeno arraroak diaudek. Geneetan mutazioak izan zitezke, eta orduan herentzia aldatu egiten duk.

— Hortik aparte, ba dago beste problemarik?

— Dosi handia harturik, esterilizatu egiten dituk pertsonak. Bestalde, haurdun daudenen artean abortoen portzentua goratu egiten duk asko, bai eta jaioberrien deformazio fisiko eta mentalena ere.

— Estaduek ez dute legerik jarri horretaz?

— Bai, erresuma* gehienetan, galerazita diagok emakumeen lana erradio-aktibitate zentroetan, haurdun direno* behintzak. Bai eta mutil gazteena ere.

— Besterik gogoratzen zain?

— Bai. Amaitzeko, zerbait esan behar dauat. Askok, hau entzun nahiz irakurri ondoren, beldurra hartuko zioate erradio-aktibitateari. Horregatik, guztiz negatibo bezala ager ez dadin, hemen hospitalean bertan erradio-aktibitateari ateratzen zaizkien aplikazioak azaldu nahi neuzke. Baina, horretarako, beste egunen batean etorri beharko huke.

— Interesgarri izanen dun. Noiz etor ninteke?

— Datorren astean, ordu berean.

— Ondo. Mila esker eta datorren asterarte.

— Agur.

J. R. ETXEBARRIA

TOKETAZKO FORMAK

diagok, dago
diatork, dator
diaudek, daude, dagoz
ditiare, dituzte
dituk, dira
duk, da
gaitik, gaitu
nian, nuen, neban
nikek, nuke
ziaiguk, zaiuku, jaku, zaigu
zioate, diote, dautsoe
zitezke, daitezke, daitekez
zitzakeate, ditzakete, daikeez
NOKETAZKO FORMAK
diagon, dago
ditun, dira
dun, da
niagon, nago

OSTERANTZEKO FORMAK

dauat, (B) dauat, (G) diat
daude, dagoz
dautan, daustan, didan
dauzkiat, dauadaz, dizkiat
dauzkit, daustaz, dizkit
gaude, gagoz
gintezke, geintezke
hezake, heike
neunan, (B) neunan, (G) ninan
neuzkek, neuskizak (neuskezak),
nizkiake
zaik, jak
zain, jan
zaizkio, jakoz
zitzaidan, jatan